

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 721/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea estatuko gaikuntzako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko 2019ko lehiaketa bateraturako deialdia

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bigarren xedapen gehigarriaren 7. paragrafoan –abenduarien 27ko 27/2013 Legeak, toki administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzkoak (TAAIL), hura idatzita utzi duen moduan–hauxe xedatzen du: gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioak arautzen dituen araudia, lege horren 92.bis eta kidekoetan aurreikusten dena, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriak, horren 149.1.18 artikulua eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, Euskal Herrirako Autonomia Estatutua onetsi zuenak, xedatutakoaren arabera aplikatuko da, kontuan izanik langile horiei buruz aurreikusitako ahalmen guztiak erakunde eskudunen eskuetan izango direla, autonomia erkidegoko araudian ezartzen denaren arabera, bere lurralderako bakarrik bertan hutsik dauden lanpostuak betetzeko lehiaketetarako deia egiteko ahalmena barne delarik, baita lehiaketa horietan funtzionarioak izendatzeko ahalmena ere.

Hortaz, kontuan izanik, alde batetik, TAAILen zazpigarren xedapen gehigarriko lehenengo paragrafoan jasotzen den aurreikuspena, alegia: “apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 92.bis artikuluan aurreikusten duen arautegia indarrean jartzen ez den bitartean, eta lege honetan xedatutakoaren aurka ez dagoen guztian, indarrean jarraituko du aipatu den artikulua aplikazio eremuaren barruan dauden funtzionarioei buruzko erregelamendu araudiak”; eta, beste alde batetik, oraindik ez denez onetsi gai honetan eskuduna den erakundea zehazten duen araudia, aplikagarria izaten jarraitzen du TAOLen zazpigarren xedapen gehigarriaren aldaketaren aurreko araudiak”.

Era honetan, uztailearen 29ko 1732/1994 Errege Dekretuan jasotzen diren aurreikuspenez gainera, honako hauek aurreikusten direnek ere arautuko dute lehiaketa hau: TAOLen 92.bis artikuluan (erkidego honetarako aplikagarriak baldin badira) eta bigarren xedapen gehigarriko zortzigarren idatz zatian; 1994ko abuztuaren 10eko Aginduan, gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak betetzeko lehiaketei buruzko arauak ematen dituen; eta 1994ko irailaren 8ko Agindua, gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak betetzeko ohiko lehiaketen baterako deialdiaren eredia eta haien oinarri-arau erkideak onartzen dituen.

Arabako Lurralde Historikoan badaude gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostu hutsak, lehiaketan nahitaez sartu beharrekoak; hortaz, aipatutako araudian ezarritakoa aplikatuz, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKIA

Lehenengoa. Lehiaketa bateraturako deia egitea, gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostu hutsak betetzeko. Hona hemen lanpostu horiek:

AZPIESKALA/KATEGORIA/LANPOSTUA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	DERRIGORTASUN DATA
Azpieskala: Kontuhartzaitza-Diruzaintza Kategoria: Goi mailakoa 1. Mailako Kontuhartzaitza		
Laudioko Udala	4	Datarik gabe
Kategoria: Sarrera 2. Mailako Kontuhartzaitza		
Amurrioko Udala	4	2014/01/01
Kategoria: Sarrerakoa edo Goi-Mailakoa (bata zein bestea) Diruzaintza		
Gasteizko Udala	4	1991/10/31
Azpieskala: Idazkaritza Kategoria: Goi-Mailakoa 1. Mailako Idazkaritza		
Gasteizko Udala (Udalbatza)	4	1994/12/31
Azpieskala: Idazkaritza-Kontuhartzaitza 3. Mailako Idazkaritza		
Aramaioiko Udala	4	1994/12/31
Arraia-Maeztuko Udala	3	2017/12/31
Eltziegoko Udala	4	Datarik gabe
Urizarreko Udala	4	Datarik gabe
Gaubeako Udala	4	2012/12/12
Zambranako Udala	4	2018/12/01
Lagran-Harana udal taldea	3	2012/12/03
Leza-Navaridas udal taldea	4	Datarik gabe
Moreda Araba-lekora udal taldea	4	2017/12/31
Zalduondo-Añana udal taldea	3	2011/05/04
Aiarako Kuadrilla	4	2011/05/05

Bigarrena. Lehiaketa bateratua I. eranskinean jasotzen diren oinarrien arabera egingo da.

Hirugarrena. Lurralde Orekaren Sailak erabaki hau ALHAOn argitara dezala.

Gasteiz, 2019ko azaroaren 12a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA

I. ERANSKINA**OINARRIAK****Lehenengoa. Lanpostu hutsak**

Lehiaketa honen ondorioetarako, honakoak lanpostu hutsak dira, eta, beraz, lehiaketan eskainiko dira:

- a) 2019ko otsailaren 10a baino lehen hutsik egon arren, toki erakundeek lehiaketa arruntean deitu ez zituztenak.
- b) Lehiaketa arruntean horien deialdia egin arren, bete gabe geratu zirenak.
- c) Lehiaketa arruntean horien deialdia egin arren, toki erakundeak beste arrazoi batzuegatik esleitu ez zituenak.
- d) Toki erakundeek beren-beregi deialdian sartzeko eskatu dituzten lanpostuak, nahiz eta hutsik geratu ziren lehiaketa arruntaren deialdiaren ostean.

Bigarrena. Parte hartzea

1. Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioek, baldin eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92.bis) artikularen 2. apartatuan eta Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 17. artikuluan aipatutako azpieskaletakoak bada. Dena den, funtzionarioek beren azpieskalei eta kategoriei dagozkien lanpostuak baino ezin izango dituzte eskatu.

Baita ere, parte har dezakete martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen iragankorrean aipatzen diren toki administrazioko idazkari, kontuhartzaile eta diruzainen lehengo kidego nazionalerako partaideek, nahiz eta azpieskala horietan sarturik ez egon, ondoko modu honetan:

- a) Hirugarren mailako idazkariak, idazkari-kontuhartzaileen azpieskalarako gordetako lanpostuetan.
- b) "Iraungitzea dauden" udal idazkariak, 2.000 biztanle baino gehiago ez daukaten udalen idazkaritzako lanpostuetan.

2. Dena den, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 18.2 artikulua aipatzen dituen funtzionarioak behartuta daude lehiaketa bateratuan parte hartzera, beren azpieskala eta kategoriako lanpostu guztietara.

Lanpostu guztiak eskatzen ez badituzte, ulertuko da uko egiten diotela zerrendatuta ez dauden lehentasun ordena ezartzeari, Balorazio Epaimahaiaren alde, eta horrek haien arteko edozein esleitu diezaieke.

3. Ezin izango dute lehiaketan parte hartu:

- a) Epai edo administrazio ebazpen finkoen bidez gaikuntzaz gabetutako edo lanetik kendutako funtzionarioek, xedapen horietan agertzen den epea igaro artean.
- b) Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92.bis) artikularen 11. apartatuari jarraituz kargubetutako funtzionarioek, zehapenak irauten duen bitartean, zehapena izan zen erakunde beraren postuetara.
- c) Euren interesengatik edo familia bateratzeagatik borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek, eszedentzia egoeran daudenetik bi urte igaro ez badira.
- d) Edozein administrazio publikotan behin betiko destinoa lortu eta lanean bi urte eman ez dituzten funtzionarioek, salbu eta dauden toki erakundeetan eta duten azpieskala eta kategoria bereberetan eskaintzen diren lanpostuak lortzeko lehiatzen badira.

Hirugarrena. Parte hartzeko dokumentazioa

1. Nazioko gaikuntza duten funtzionarioek hamabost lanegun izango dituzte, lehiaketa BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Beste Administrazio batzuekiko Harremanetarako Azpizuzendaritza Orokorrean, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia (Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Agirien Sarrera Erregistroa. María de Molina kalea, 50. 28071 - Madril) edo Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren egoitza elektronikoen bidez (ACCEDA. Procedimiento: Solicitud de participación en el concurso unitario; helbidea: <https://sede.administracionespublicas.gob.es/>) agiri hauek aurkezteko:

* Zinpeko aitortpena, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 18.3 artikuluan jasotzen diren egoeretan ez daudela adieraziz.

* Euskararen jakite maila egiaztatzen duen ziurtagiria, euskara jakitea derrigorrezkoa bada eta dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta badu, eta autonomiari dagozkion merezimenduei dagokiena.

* Euskararen jakite maila egiaztatzen duen ziurtagiria, euskara merezimendu gisa hartzen bada.

* Bi lanpostu edo gehiagotara aurkezten direnek zein lehentasun duten adierazi beharko dute.

Lehentasun ordena adierazteak ez du ordezkutzen, inolaz ere, lehiaketan parte hartzeko eskaera.

Euskarazko hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azterketa egin nahi dutenek eskaerak aurkezteko epearen barruan eskatu beharko diote Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari (Donostia kalea zk.g. , 01010 Gasteiz). Era berean, eskaera formatu elektronikoa ere aurkeztu ahal izango da URL helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/2019/gaikuntza-nazionaleko-funtzionarioentzat-lehiaketa-bateratua/y22-izapide/eu>

2. Euskal Autonomia Erkidegoko lanpostuak bakarrik eskatzen badira, Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzan aurkeztu behar dira eskabideak eta agiriak (Donostia kalea, zk. g. 01010 - Gasteiz).

Era berean, eskaera formatu elektronikoa ere aurkeztu ahal izango da URL helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/2019/gaikuntza-nazionaleko-funtzionarioentzat-lehiaketa-bateratua/y22-izapide/eu>

Eskaera aurkeztea eragotzi gabe, eta horretarako eman den epearen barruan, eskatzaileek Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzara jo dezakete euskarazko jakite maila egiaztatzeko proba egiteko eskatzera.

3. Oinarri hauen bukaeran agertzen den ereduaren edo horretarako gaitu den eskaera egiteko eredu elektronikoen arabera egingo da lehiaketan parte hartzeko eskaera.

4. Eskatutako eskakizunak eta merezimenduak Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak deialdia BOEn argitaratzeko agintzen duen ebazpena onesten duenerako bete behar dira.

Laugarrena. Balioespen Epaimahaiaren osaera

1. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osatutako epaimahai bakarrak egiaztatuko ditu euskararen jakite maila eta berak ezarritako merituen balorazioa. Epaimahaiaren osaketa dagokionean zehaztuko eta jakinarazi du bertako organo eskudunak.

2. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkari batek parte hartuko du epaimahaian, baina bakarrik euskararen jakite maila egiaztatzeko diren probetan.

Bosgarrena. Merezimenduen balioespena

1. Balioespen epaimahaiak lehiakideek deialdian ezarritako betekizunak betetzen dituzten ala ez egiaztatuko du, eta betetzen ez dituztenak baztertu egingo ditu.

Jarraian, bazterturik geratu ez direnen merituak balioetsiko ditu, eta honela egingo du:

* Merezimendu orokorrak deialdi honekin batera argitaraturiko zerrendaz baliatuta balioetsiko dira; lehiatzaileek ezin izango dute beste egiaztargiri gehigarririk egin, ez eta epaimahaiak bestelako balioespenik egin ere.

* Autonomiari dagozkion merezimenduak balioestea lehiatzaileek egiaztatu dituztenetan oinarrituta egingo da.

* Euskararen jakite maila balioestea, hori derrigorrezkoa ez denean.

2. Euskararen jakite maila balioestea; merezimendu gisa balio duenean, honela egingo da:

- 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea: 5,70 puntu.
- 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea: 4,28 puntu.
- 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea: 2,85 puntu.
- 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea: 1,43 puntu.

Euskara jakitearen merezimenduaren gehieneko balioespena ez da izango, inolaz ere, deitutako lanpostuak esleitura duen hizkuntza eskakizunerako aipatutako baremoan aurreikusitakoa baino handiagoa.

Gauzak horrela, hizkuntza eskakizun bat edo batzuetarako proba egin nahi duten lehiakideek berariaz adierazi beharko dute lehiaketan parte hartzeko eskaera orrian.

Proba horien bitartez ez ezik, hizkuntza eskakizunak HAEE-IVAPek emandako ziurtagiri bidez ere egiaztatu daitezke, baita honako hauetan adierazten diren bideetatik ere: 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena, eta 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena. Agiri horiek lehiaketan parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira. Lehiatzaileek, parte hartzeko eskaera egin eta gero lortzen badituzte euskararen ezagupenaren egiaztargiri edo tituluak, balorazio epaimahaiak lanpostuak esleitzeko proposamena egin baino lehen aurkeztu ahal izango dituzte egiaztargiri edo titulu horiek.

3. Merezimendu orokorreatatik lor daitekeen gehieneko puntuazioa 19,50 puntu izango da, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 15. artikuluan eta 1994ko abuztuaren 10eko Aginduan jasotzen den baremoaren arabera banaturik.

4. Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren 1988ko azaroaren 8ko erabakiarekin bat etorritik (azaroaren 12ko 212. zk.ko EHAA, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarriko 8. idatz zatiari dagokionez), honela banatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoari jartzea dagokion merezimenduen 9 puntuak:

– 6 puntu, hurrengo gaien inguruko lan edo ezagupenengatik: Autonomia Estatutua, eskubide historikoak, Autonomia Erkidegoaren erakunde sareari buruzko araudia eta hizkuntza normalizazioaren plangintza (batez ere nola aplikatzen den administrazio publikoetan).

– 3 puntu, hurrengo gaien inguruko lanengatik edo ezagupenengatik: Ekonomia Itunaren ondoriozko berezitasun ekonomiko-administratiboak eta, ondorioz, Itunak toki ogasunen gaian duen eragina.

Autonomiak ezartzen dituen merezimendu horien egiaztapena honela egingo da:

a) Gai horiei buruz antolatu diren ikastaro, jardunaldi, kongresu, mintegi eta gainerako topaguneetan parte hartu dela egiaztatuz.

b) Espezialitate horiei buruzko argitalpenak eta lanak aurkeztuta.

c) Gai horiekin zerikusia duten ikastaro edo jardunaldietan hizlari edo irakasle izana egiaztatuz.

5. Bi lehiatzailek edo gehiagok azken puntuazio berbera izatekotan, Epaimahaiak autonomiari dagozkion merezimenduetan puntuaziorik handiena lortu duenari emango dio lehentasuna esleipen proposamenean. Hala ere, puntuazio berberak jarraituko balu, merezimendu orokorretan uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 15.1 artikuluko a), b), c), d) eta e) apartatuetan puntu gehien lortu dituenari (hurrenkera horretan). Azken batean, hautapen prozesuaren lehentasun hurrenkera oinarri harturik ebatziko da berdinketa.

Seigarrena. Ebazpen proposamena

Epaimahaiak lehiatzaileen bazterketa eta azken puntuazioa egin ondoren, baztertu ez direnen eta haien puntuazioen zerrenda bidaliko dio foru aldundiari, puntuazioaren arabera ordenaturik, bai eta baztertuen zerrenda arrazoitua ere.

Zazpigarrena. Izendapenak koordinatzea

Lehiatzaile baten aldeko izendapenen koordinazioa interesdunek adierazitako lehentasun ordenaren arabera egingo da.

Zortzigarrena. Ebazpena

Koordinazioaren emaitzaren arabera, foru aldundiak lehiaketaren ebazpena emango du, eta autonomia erkidegoko organo eskudunera bidaliko du, horrek Funtzio Publikoko Zuzendaritza Orokorrera bidal dezan.

Bederatzigarrena. Lanpostuaz jabetzeko epea

1. Lehiaketan lortu diren lanpostuez jabetzeko epea hiru egun baliiodunekoa izango da lanpostua bizi diren herrian lortu duten izangaientzat, eta hilabetekoa, lehen destinoa bada edo lanpostua beste herri batean badago.

Epe hori aurreko lanpostua utzi ondorengo egunean hasiko da; izendapenak ALHAOn argitaratu eta hurrengo hiru egun baliiodunetan utziko dira lanpostu horiek.

Ebazpenak zerbitzu aktiboan hasi beharra badakar berarekin, lanpostuaz jabetzeko epea ebazpena argitaratzen den egunetik kontatu beharko da.

2. Interesdunek baimen edo lizentziaren bat izanez gero, horiek amaitu arte ez da hasiko jabetza hartzeko epeen kontaketa.

3. Zerbitzuko beharrianengatik, lehiatzaileak postuari utzi edo postu berriaz jabetu behar duen korporazioen lehendakarien akordio baten bitartez, uztea eta jabetzea gehienez ere hiru hilabetez atzeratu ahal izango dira. Lehiatzaileak erabaki horren berri eman beharko die Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eta Arabako Foru Aldundiaren Toki Administrazioaren Zuzendaritzari.

Salbuespenez, interesdunak eskaturik eta justifikatutako arrazoientzat, lanpostuaz jabetzea ere denbora berdinez atzeratu ahal izango da, kasuan kasuko lehendakarien arteko akordio bat dela medio, horren berri emanda Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eta Arabako Foru Aldundiari.

Hamargarrena. Destinoen ukaezintasuna eta borondatezkotasuna

Esleitzen diren destinoak uko egin ezinezkoak izango dira, eta borondatezko izaera izango dute. Ondorioz, ez da ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko lekuz aldatzeagatik.

Hamaikagarrena. Kargua uztea eta lanpostuaz jabetzea

1. Lehiaketaren ebazpenaren arabera, lanpostu bat lortu duten lehiatzaileek aurreko postua uzteko eta berriaz jabetzeko egin beharreko eginbideen berri eman beharko zaie Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eta Arabako Foru Aldundiari, bi izapide horiek egin eta hurrengo hiru egun baliodunetan.

2. Postuaz jabetzeak postu horri loturik dauden eskubide eta betebeharrak hartzea dakar berekin, eta une horretatik aurrera funtzionarioa kasuan kasuko udalaren menpe egongo da.

Hamabigarrena. Errekurtsoak

Lehiaketa prozeduran egindako administrazio egintzak aurkatu daitezke, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidea-renak, ezarritakoaren arabera.

II. Eranskina ■ Anexo II

Eskabide eredua (1) ■ Modelo de instancia (1)

I. DATU PERTSONALAK ■ I. DATOS PERSONALES

Izena eta deiturak ■ Nombre y apellidos

NAN ■ DNI

PEZ ■ NRP

Helbidea, jakinarazpen eta komunikazioen ondorioetarako ■ Domicilio a efecto de notificaciones y comunicaciones

Kalea eta zenbakia ■ Calle y número

Posta kodea eta herria ■ Código postal y localidad

Probintzia ■ Provincia

Telefonoa ■ Teléfono

Helbide elektronikoa ■ Dirección de correo electrónico

II. DATU PROFESIONALAK ■ II. DATOS PROFESIONALES

Parte hartzea eskatzen duen azpieskala(k) eta Katategoria(k) ■ Subescala(s) y categoría(s) a que concursa

Egoera administratiboa ■ Situación administrativa

Egungo destinoa ■ Destino actual

Izendapen modua eta data egungo destinoan (2) ■ Forma y fecha de nombramiento en el destino actual (2)

III. EUSKARAREN EZAGUTZA EGIAZTATZEKO PROBA EGIN NAHI DUZU?

III. ¿DESEA REALIZAR LA PRUEBA DE ACREDITACIÓN DEL CONOCIMIENTO DEL EUSKERA?

BAI ■ SÍ

EZ ■ NO

Egiaztatu nahi den/diren hizkuntza eskakizuna/k ■ Perfil o perfiles que desea acreditar

IV. ESKATZEN DITUEN LANPOSTUAK ETA LEHENTASUN-HURRENKERA**IV. PUESTOS A QUE CONCURSA Y ORDEN DE PRELACIÓN**

	Toki entitatea eta probintzia ■ Entidad local y provincia	Lanpostuaren izena ■ Nombre del puesto
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		
8.		
9.		
(3) 10.		

Gaikutza nazionalako Toki Administrazio funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko lehiaketa bateratuan, Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenez deitutakoan (.....BOE,.....zk.), parte hartzea eskatzen dut, goian adierazitako lanpostuetarako; eta adierazten dut ez nagoela bigarren oinarrian jasotako baztertzeko arrazoietan.

Solicito tomar parte en el concurso unitario de provisión de puestos reservados a personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional, convocado por resolución de la Dirección General de la Función Pública del Ministerio de Hacienda y Función Pública (BOE nº..... de fecha.....), a los puestos de trabajo arriba señalados, declarando no incurrir en ninguna de las causas de exclusión indicadas en la base segunda.

GAINERATZEN DEN DOKUMENTAZIOA ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ACOMPAÑA**A. Euskararen ezagutza egiaztatzeko dokumentazioa ■ A. Documentación acreditativa del conocimiento del euskera**

B. Euskal Autonomia Erkidegoak ezarritako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa**B. Documentación acreditativa de los méritos de determinación autonómica**

(Lekua, data eta sinadura ■ Lugar, fecha y firma)

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia. Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritza (4)
Dirección General de la Función Pública. Secretaría de Estado de Función Pública (4)

(1) Eskaera bakarra bidali behar duzu Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusira, edo, baldin eta lanpostuak Euskal Autonomia Erkidegoan baino ez badira eskatzen, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzara. Zehaztutako merezimenduen egiaztagiriak erantsi beharko dizkiozu eskaerari, hala badagokio.

(2) Behin betikoa ala behin-behinekoa.

(3) Lehentasunean lanpostu gehiago agertzea nahi bada, beharrezko diren zenbaki guztiak ezarri.

(4) Euskal Autonomia Erkidegoko lanpostuak bakarrik eskatzen badira, eskaera hau Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzara bideratu behar da (Donostia kalea, 1, 01010 Gasteiz).

(1) Debe enviar una solicitud única a la Dirección General de la Función Pública del Ministerio de Hacienda y Función Pública o, en el supuesto de que se soliciten exclusivamente puestos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, a la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, acompañando, en su caso, la documentación acreditativa de los méritos de determinación alegados.

(2) Definitivo o provisional.

(3) Añadase cuantos números sean precisos en función de la extensión que se desee dar a la prelación.

(4) Si sólo se solicitan puestos en la Comunidad Autónoma del País Vasco debe dirigirse a la dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco (c/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz).

2/2